

luke. Euskaltzainburuaren aburua ontzat arturik Gipuzkoa'ko *aditz-lana* egotzi zaio.

6. Azkue jaunak Odon Apraiz jaunari *presupuesto* bat eskatu dio, onek bear bezala Bidasoa aruzko *Erizkizundia* egin dezan. Apraiz jaunak ez du oraindik erantzun.

7. Eguskitza jaunak *euskal-izpiakereari* dago-kion lan eder bat irakurri du.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoi-tzez bukatu da batzaraldia.

---

### Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian, 1924 'ko Garagarila 'ren 27 'an.

Aurereko batzaraldian aipatzen diran euskaltzain berak datoz, Azkue maipuru dutela.

1. Ortiz de San Pelayo jaunak, Amerika'tik bialtzen duen ezkutitza Irakurri da Euskaltzaindiari 100 peseta igoriaz ta ango euskaldun artean gure alde lan egingo duela agintzen du. Eskeñak bialtzen zaizkio.

2. Iruña'ko Gobernadore jaunak, Napañoa'ko euskal-jaietarako ematen duen baimen-idazkia irakurri da.

3. Bähr jaunaren ezkutitz bat Euskaltzainburuak irakurri du.

4. Euskaltzain artean asko ta luze itz egin da : *ekañi du, dute... u oni dagokion aditz laguntzaillea ukan ala edu ala eduki ala zein beste otedan. Ez da ezer erabaki.*

5. Azkue jaunak Zigoitia'ko euskalkiak zer era ta taju dituen ederki adierazi digu.

Ta beste gairik izan ez-da otoitzez bukatu da batzaraldia.

---

### Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian, 1924 'ko Urriaren 30 'an.

Azkue jauna maipuru dutela euskaltzain abek bildu dira : Urkijo, Kanpion, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza eta Lakonbe.

Otoitzez asi da, oitura danez, batzaraldi au.

1. A. Intzak beñi abek adierazten ditu : Iruña'ko egunari batek txalotzen ditu antxe izan diran euskal-azterketak, bai *Normal'an*, bai ere apaiz-ikastetxean. Seminario'ko ikasle batzuek euskal-lan politikak egin dituzte joan dan udaran, Napañoa'ko toki-izen batzuek piloturik. Lanik edereña Narbarte'ko apaizgai batek egiña da. Euskal-lanak eñi abei dagozkie : Egiñeta, Muzkiz, Añaña, Elizondo, Añiba, Azkarate, Atalo, Leiza, Zugaramurdi, Aldaz, Laraintza, Lezaeta, Zubietta, Bera, Uizi, Gofiti ta Narbarte. Erabaki da : gazte langile abei, sarizat bezela, euskal-liburu batzuek ematea. Aita Intza berak esan digu : zer izan diran Napañoa'n egin diran euskal-jayak : Narbarte'n Lakoizketa'ren oroitarria azaldu danean ta Lekunbeñi'n. Azkeneko eñi ontan itzaldi bikañak egin dituzte Oreaga'ko Abade edo Apaiz nagusiak eta gure Euskaltzainburuak.

Egintza atsegin aben beñi gogoz eta pozik entzun zaio Aita Intza'ri ta entzun ondoren Euskaltzaindiak txalo beroak igortzen dizkio.